



Gastronomia Vasca

Un viaje a través de los sabores

Martxoan ere kata gidatuak hainbat sagardotegitan por Gastronomía Vasca

Archivado en: [Eventos](#), [Productos](#)



Arrakasta handia izan dute [Sagardoaren Lurraldeak](#) antolatuta otsailean ospatu diren IV. probaketek eta martxoko egutegia sagardotegietako afariekin uztartu ahal izango diren kata eta sagardozeleentzako dastaketa berriekin dator.

Martxoaren 16an Usurbilgo **Saizar Sagardotegian** izango da probaketa. Proposamena sagardo bakoitzaren berezitasunak bereizten ikasi nahi dituen sagardozeleei zuzendua dago eta dastaketa Fernando Vadillo enologoak zuzenduko du.

Bestalde, afariekin uztartzeko aukera emango duten probaketak ospatuko dira **martxoko asteazken guztietan** Astigarragako **Gurutzeta Sagardotegian**. Gurutzetaren eskaintzak upeltegiko arduradunek zuzenduriko sagardo dastaketan hastapena eskaintzen du. Gainera, asteazkenetan Gurutzeta sagardotegiko afarietan otxoteak izaten dira giroa alaitzeko. Dastaketa gidatuaren eta pintxoaren prezioa 10€ da pertsonako eta dastaketa gidatua eta sagardotegiko afaria 30€ da pertsonako.

www.sagardoarenlurraldea.com

COMPARTIR   

Martes, 5 Marzo, 2013 - 8:44 am

Escribe un comentario

Nombre*

E-mail* (no se publica)

Website